



abaraska 'adar meheak'	«Alba bere ondoan egoten zen gehienetan, abaraska arteko zirriztuetatik bere begietara eguzki gehiegi hel ez zedin begiratzuz...»	(165)
adur 'patua, indar ezkutua'	«Berak eta ez adurak aukeratu balu bezala maite zuen gazte hura.»	(109)
ahausi 'zaunka'	«Orain, ahausi haiek, benetan zakurrarenak baziren, hankaz gora botatzen zituzten beren usteak.»	(143)
aihen 'landare kimu luzea'	«... mutikoa gatibu zeukaten aihen aldera egin zuen igeri.»	(8)
aihendu 'aihenak erne'	«... han-hemen nekazariak landareak aihentzeko jarritako parretatik zintzilik alerik gabeko lasto lehor batzuk.»	(64)
aise 'erraz'	«... aise sinisterrazi zion Didacek behin hain urrun helduz gero, gaizki egingo zutela jarraitzen ez bazuten.»	(129)
akitu 'nekatua, indargetua'	«Hara igo eta mutikoaren gorputz akitua jasotzerakoan...»	(9)
aldarte 'gogo egoera'	«...negar egitetik haserretzera zeramaten bat-bateko aldarte aldaketa haiek ere ez zituen.»	(158)
amarrugabe 'maltzurkeriarik gabea'	«Larrugorrian egoteak ez zuen ez bata ez bestea lotsarazten, amarrugabea zelako mutikoa...»	(16)
anker 'krudel, gaiztoa'	«Beharbada, berak uste baino zirrarara handiagoa egin zion, une hartan bere burua ankertzat baitzeukan.»	(116)
arestian 'duela gutxi'	«Zeren, berehala ohartu baitzen arestian eguzkiaren errainuek ikutu zuten gauza hura zela.»	(73)
arregosi 'azaleko gorriuneak'	«...belarri atzeak eta lepotik beherakoa kolore gorri iluneko izpilez beterik zeukala konturatu zen, arregosien antzera.»	(58)
arteka 'etxeen arteko pasabidea'	«Eta eguraldi txarrak iraun zuen bitartean, etxe kaxkar batzuen artekako azprietan bizitu ziren.»	(99)
atoi 'herrestan eramateko ibilgailua'	«... atoia zeraman kotxe bat, idazmakinez betetako furgoneta bat eta bi moto amildegi batean behera erorita zeuden.»	(79)
balizko 'litekeena, posiblea'	«... aparailuen balizko etorrerak garrantzi gutxikoa zirudien...»	(59)
baralda 'eskudela'	«...oraindik baralda osorik zuen patioko leiho aldera begira...»	(13)
barrundatu 'susmatu'	«...pare bat bider gelditu beharrean egon zen, une batzuetan, itsua bailitzan, ez baitzuen ezer barrundatzen .»	(179)
behin-behineko 'betiko ez dena'	«...lehengo bizimoduarekin jarraitu zuten, ondo gogoan izanik, ongi zein gaizki joan, behin-behineko zela.»	(74)
belaki 'ehun lodi latza'	«Maindire baten gainean etzan zuen Didacen gorpua; erantzi eta belaki batekin goitik behera garbitu zuen...»	(180)
belundu 'ilundu, tristetu'	«...begitartea belundurik utzi zien, sorreriaz jota baleude bezala.»	(9)
berezgaineo 'norberaren esku ez dagoena'	«Botere edo geroko hilezkortasun egarriz zegoen batek ez al zitzakeen handik berezgaineo beste dotrina baterako osagarriak atera?»	(149)
bernazaki 'bernezurra (tibia)'	« Bernazakia hautsirik zuela antzeman zion berehala...»	(34)
berrikitan 'duela gutxi'	«...ez zegoen berrikitan landutako ezeren arrastorik...»	(80)
buruaz beste egin 'burua hil'	«Bere buruaz beste egitea pentsatu zuen, baina ez zuen adorerik izan.»	(97)



dohakabe 'zorigaiztokoa'	«Bat-batean, bizitza are dohakabeago bihurtu zitzaien.»	(57)
edoskaldi 'bularra hartzeko garaia'	«...berrogeita hamar bat ontzi zeuzkan bilduta, urarekin nahastu be- harrekoak, eta dozenerdi biberoi, edoskaldi osoa betetzeko lain.»	(155)
eltzekari 'eltzeko janaria, lapikokoa'	«Pitxar bat sabaitik eroritako igeltoso batzuekin hautsita zegoen, baina gainerakoak osorik zeuden, eta barruan eltzekaria zegoen.»	(45)
enbata 'oldarra, eraso, bultzada'	«...lurralde haien imajina eta ageriko mugarik gabe udaren enbatari irekia zegoen itsasoarena.»	(147)
eragotzi 'galerazi'	«Ez zuten ulertzen eta kezka isil batek berriz lo hartzea eragotzi zien gau hartan...»	(68)
erauntsi 'eraso, erorialdi'	«...eta haitz artean (...) harri erauntsiak ongi estali gabeko ibilgailu gehiago bereiz zitekeen.»	(83)
erdiragarri 'gutziz hunkigarria'	«Euliak ere ez ziren hil eta han zebiltzan, biktima erdiragarrien inguruan burrunbaka.»	(14)
eriosuar 'oldarrez, biziro'	«Eta eriosuar , zaborrak ateratzen hasi zen eskuekin...»	(179)
ernamuin 'haziaren lehen kimua'	«...euriaren laguntzarekin sortutako ernamuinen ondorio ziren basa-landare eta belar txarrak...»	(64)
ernemindu 'ernetzen hasi'	«...baita baratzuri korda eta zaku patata piloa ere. Hauek ernemindurik zeuden eta batzuk besterik ez ziren baliagarriak.»	(43)
errebal 'hirien bazterreko auzoa'	«Eta galderak ugaldtu egin ziren Benauroko errebalak gurutzatzen zituen errepidera heldu eta bapatean...»	(15)
erresiloi 'zahia, garauaren mintza'	«Albak bazekien herrian erresiloi oretua ematen zietela; beraiek ez zuten, ordea...»	(170)
erreten 'ubide txikia'	«...kanpora ematen zuen erreten antzeko bat ireki zuten zeharka...»	(33)
eskugurdi 'eskuz eramateko gurditxoa'	«—Honuntz gentozela bi eskugurdi ikusi ditut harginaren almazenean...»	(19)
espekulu 'ginekologi tresna bat'	«Eta aldi berean espekulu eta zurdak ere bilatzen zituen, erditzerakoan arazoren bat sortu eta ebaketa egin behar izanda ere.»	(155)
ezponda 'muna txikia'(desnível)	«... etxebehe batzuetako ezponda zeharkatu...»	(11)
gapirio 'gailurretik ertzerako haga'	«Gazitegi gisa zegoen taularen mutur batean, gapirio batetik zintzilik...»	(45)
garastatu 'zipristinez ureztatu'	«...kalea garastatzen zuten ur zirristen txistu hotsak bakarrik apurtzen zuen isiltasuna...»	(14)
garramatu 'urratu, harildu'	«Arropa zati batzuekin zerrendak egin eta, iluntze aldera, garramatu egiten zituzten...»	(31)
gartsuki 'gogo biziz'	«Eta ene bihotz barrenean Didac, bere aita bezain goiztiarra izatea desiratu nuen gartsuki ...»	(180)
gazitatu 'ohartarazi, abisatu'	«Txori (...) haietariko asko zintzilik jarri zituzten, bizirik geratzen zirenak, jaramon egin nahi izanez gero, gazitatzeko .»	(172)
gogoanbeharrez 'fidagaitz, susmo txarrez'	«...eta berriz ere zerura begiratzen zuten behin eta berriro gogoanbeharrez , bertatik etor zitekeen mehatxuaren beldur.»	(98)
goibeldu 'triste jarri'	«...Didac, bere burua baztertua ikustean, goibeldu egiten zen hitzik gabe geratu arte.»	(153)
gorrina 'elgorria, eritasun bat'	« Gorrina etorri zitzaion bat-batean gogora.»	(58)



hastear 'hasteko puntuan'	«Osorik zegoenetako batek ere hegaldia hastear egon behar zuen...»	(112)
haztamuka 'nora ezean'	«Eta biharamunean hara abiatu ziren, haztamuka antzean, neskatxak ere ez baitzekien oso ongi non aurkitzen zen.»	(112)
herabe 'lotsatia'	«—Lehen hegazkilariari ez zion inork erakutsi, Alba— kontrajarri zuen mutikoak, herabe .»	(112)
hesol 'hesietarako haga txikia'	«...itsasontziari eusteko hondarrean hesolak sartzea bururatu zitzaien eta eutsi egin zioten...»	(132)
hestebete 'haragi xehedun hestea'	«...urdaiazpikoz eta era askotako hestebetez gainezka zegoen makila luze baten azpian...»	(17)
hilotz 'gorpua, gorputz hila'	«... hilotzek zeramatzaten traktore eta nekazal makinak ageri ziren...»	(115)
hizbesteak 'aitzaki hitzak'	«Elkarrizketa hark Didacek hizbesteak (...) erantzunak baztertzeko beste heldutasun bazuela ikusterazteko bertutea ere izan zuen.»	(150)
ibi 'sakonera gutxiko erreka'	«Behelaldeko baratzen ibitik egin zuten itzulia, Benaurea ez zeharkatzearren eta larrainera igo ziren...»	(53)
ihar 'zimela, ahuldua'	«Edo agian hala dirudi iharrago nagoelako. Anemiaren bat harrapatzen ez dugun bitartean...»	(38)
inular 'ilunabarra, iluntzea'	« Inular aldera, untziak gutxi gora behera leku berean jarraitzen zuen...»	(104)
iragazketa 'ur sarrera-irteerak'	«...batzuek egur ustelak zituzten, hala nola hondora zeramatzaten ur iragazketak ...»	(114)
istinkatu 'bikez hermetikoki itxiak'	«...baina beste batzuk, hobeto istinkatuak beharbada, baliagarriak izango zitzaizkien seguraski...»	(114)
itogin 'ur jarioa'	«...zaparrada ederra botatzen ari bait zen eta estalpean itoginak zeuden.»	(44)
itute 'ur tantazko jarioa'	«Ordekan zegoen txalet bat aukeratu zuten, egoerarik onenean zegoena, itute batzuk besterik ez baitzeuzkan...»	(166)
izpil 'orainena, azaleko mantxa'	«...belarri atzeak eta lepotik beherakoa kolore gorri iluneko izpilez beterik zeukala konturatu zen...»	(58)
jorrai 'jorratzeko tresna, aitzurtzua'	«... bi ontzi, bi zerra, aitzur bat, bi jorrai ...»	(19)
karen 'selaguna (placenta)'	« Emagintzako liburu batzuek jakin arazten zutenez, batzuetan karen zati bat barruan gera zitekeen...»	(155)
kilikadura 'kilimazko ezinegona'	«Eta ezpainak kilikaduraz gainezka zituela, musu eman zion.»	(140)
kiriburu (?)	«...beste haur batzuek heriotza aurkitu zuten landare haien kiriburuen artean...»	(9)
kokildu 'makurtua, kikildua'	«...bihotza jo eta ke, ahitu antzean kolpeka ari zen bularraren kontra kokildua ...»	(63)
kokoriko 'kukubilka'	«...txixa egitera sartu nahi izan zuen, agian ordura arte beti lurtean kokoriko jarrita egin behar izan zuelako.»	(54)
kordokatu 'dardar egin'	«...berriro besoetan hartu eta oraingoan hankak kordokatu gabe, sahatsetaraino eraman eta hilobira jaitsi zuen.»	(180)
kukul 'baldarra, indarririk gabea'	«...errotik atereak izan ez ziren zuhaitz kukulek eskeletu itxurako abar biluzi eta lehorrak erakusten zituzten.»	(85)
kurruxka 'kartilagoa'	«...hezurrak, zurdak, kurruxkak , urte edo mendetako bilakaera luze batean hauts bihurtzen joango zirenak.»	(79)



lain 'adina, beste'	«...urte guztian bertatik jateko lain fruta bazuten han.»	(90)
lardaskeria 'zatarkeria, kutsadura'	«Egun eguzkitsuetan eguratsa garbi zegoen beti, gizonen lantegietatik etorritako lardaskeriarik gabe...»	(114)
larrain 'garijotzeko plazatxo'	«Oraindik abereekin garijotzen zeneko larraina izandakoa zeharkatuz hurbildu...»	(42)
larrugorrian 'biluzik'	« Larrugorrian egoteak ez zuen ez bata ez bestea lotsarazten...»	(16)
lasta 'lastrea'	«Itsasontziak, lastak oraindik egonkortasun gehiago zemaion itxurarekin...»	(122)
lastai 'lastozko koltxoia'	«Nahigabeak jota, lastai baten gainean etzan zen...»	(59)
latorri 'burdinazko txapa mehea'	«...tximinia bat jaso zuten, masiari kendutako latorrizko erreten batekin teilatuan gora luzatu...»	(47)
lubeta 'lur pilatuzko muna'	«...bere oinpean irristatzen ziren lubetetan behera joatera behartzeraino...»	(11)
maindire 'izara'	« Maindire baten gainean etzan zuen Didacen gorpua...»	(180)
makets 'motela, indarrik gabea'	«Eta Didacek, oraindik ahots maketsarekin , arra zela esan zuenean...»	(162)
mehankoil 'haragi gutxiduna'	«...bere hatz mehankoilen artean bere buruaz beste egiteko erabili zuen errebolberra zeukan oraindik...»	(106)
mizkin 'janarietarako berezia'(perts.)	«...usain batzuek nazka ematen baitzioten Albari. Berak zioen bezala: — Mizkina bihurtzen ari naiz.»	(153)
morroilo 'ate-leihoak ixteko barra'	«... morroiloz itxirik zegoen atetxo baten aurrean suertatu ziren...»	(45)
muzin egin 'alde batera utzi'	«Beraz, muzin egin beharrean, haren gogoaren azkeneraino iristeko modua bilatzen saiatu zen...»	(150)
nerabe 'ernaltzeko sasoiaren dena'	«...izu antzeko aurpegia jartzen zuen mutiko nerabe begi handi eta azpegi zehatzehatzeko bat.»	(109)
oldartsu 'indartsua, erasokorra'	«...zenbait tokitan geiser oldartsuak hautsartean gora igoaz.»	(10)
onezkoak 'bakeak'	«...samurtu egin zen eta Albak berak egin nahi izan zituen onezkoak .»	(142)
ordeka 'zelaia, toki laua'	«Herritik bost kilometrotara hasi eta atzekaldeko mendietaraino (...) hedatzen zen, ia dena ordekan .»	(18)
ordoki 'lautada'	«Eta handik denbora luzera, lurrezko ordoki garai batera heldu ziren.»	(26)
osin 'urtegi txikia'	«...mahastietariko batean baso aldetik zetorren ura jasotzen zuen osin txiki bat zegoen...»	(46)
otu 'bururatu'	«...estankuaren parera heltzean, bertan sartzea otu zitzaien...»	(20)
pike 'itxiuneetarako gai itsaskorra	«Eta jarraian itsasuntzia istinkatu zuten, kanpotik berria bezala utzi zuen pike geruza eder bat emanez.»	(119)
piltzar 'ehun zati urratua'	«...haien hezurak bakarrik geratzen baitziren neguak desagindako arropa piltzarren azpian.»	(61)
profitatu 'aprobetxatu'	«...iluntzen ari zela profitatuz , zera esan zion...»	(21)



saldoka 'multzo handian'	«...alde batetik bestera saldoka zihoazen hodeiez beteta egoten zen zerua...»	(142)
sarobe 'artzainen babeslekua'	«...baita ikuilu eta sarobeetan zeutzan mando, txerri eta konejuen gorpuak ere.»	(14)
sarrakio 'beldur-ikara, izua'	« Sarrakioa sortzen zuen lasaitasun antzekoa zen.»	(85)
sorreria 'higikortasunik eza'	«...begitartea belundurik utzi zien, sorreriaz jota baleude bezala.»	(9)
suspertu 'bizkortu, adoretu'	«Mutikoa (...) koilarakadak irensteko ia adorerik gabe, suspertu egin zen zertxobait...»	(60)
trenkada 'horma mehea, tabikua'	«... trenkada baten azpian, tenientea (...) lotan balego bezala geratu zen despatxuaren ostean...»	(20)
trintxa (?)	«...shorts-en hankakoetariko bat bertan trabatu eta goitik beheraino iriki zitzaizkion, euskailu bakarra trintxa zutelarik...»	(11)
trosko 'bultoa, konkor handia'	«Lona zatiz estalitako txalupak izan bide ziren trosko batzuk zeramatzen muturretatik zintzilik.»	(104)
turrustan 'zaparradaka'	«...euria turrustan egin zuen gau baten ondorengo goizean...»	(93)
txila 'ohol mehea'	«Egur txilaz egina zegoen eta usoentzat izan behar zuen, baina lasai asko sartzen ziren han dozena bat oilo.»	(169)
txintxor 'harri zatia, kaskoa'	«...harik eta belaunek igeltsu txintxorrez beterik zegoen lurra ikutu arte...»	(12)
uharka 'urtegia, ur biltegia'	«... uharkako putzura bultzatzen ari ziren mutiko biri errietan egitera gelditu zen.»	(7)
urlo 'ur geldi edo barea'	«Han ura gelditu egiten zen urloa sortuz eta sakona zela zirudien...»	(55)
uxartu 'industu, musturraz aztertu'	«Azkar asko zuzendu zuen burua Albaren bular aldera eta, gehiegi uxartu gabe, titiburuarekin topo egin eta bere kasa irten zitzaion dena.»	(162)
uzkurtu 'bildu, estutu'	«Eta bizkarrak uzkurtu zituzten, aurreritiz beteriko giro krudel batean hezitako bi mutiko baitziren.»	(7)
xaloki 'apalki'	«...bakoitzak bere eritzia hain xaloki adierazten zuen, ezen pertsona benetan ikasi bati barregura emango zioten.»	(150)
xuxurlatu 'ahopean hitz egin'	«...bere ezpain zartatuak mugituz, zera xuxurlatu zuen: —Aterako nauzu honetatik, ezta, Alba?»	(63)
zahagi 'larruzko ontzia'	«...bi zahagi zeuden, bata handiagoa eta bestea txikiagoa, eta honen barruko ardoak oso zaharra izan behar zuen, mindurik baitzegoen.»	(46)
zahi 'buru azaleko ezkatatxoak'	«...azala ezkatatzen ari zitzaiola hauteman zuen Albak, batez ere izpilak zituen lekuan, non zahi antzeko zerbait sortzen zen.»	(63)
zartatu 'arrakaldu'	«...eta bere ezpain zartatuak mugituz, zera xuxurlatu zuen: ...»	(63)
zedendu 'alferrikaldu, lizundu'	«...handik bi egunetara atera zituzten bi irin zakuak ezin zitezkeen aprobeixatu; busti egin ziren eta zedendurik zegoen.»	(47)
zelatan 'zaintzan'	«...orain Didac-ek bolantea hartuta eta Alba fusilarekin zelatan jarririk...»	(80)
zimiko 'damua, errukia'	«...ez zuen inolako bihotz- zimikorik izan, bere burua defendatzeko aukerarik eman gabe atzetikapuntatzen ari zitzaiola konturatu zenean	(71)
zira 'euritarako jantzia'	«...musuzapiak, galtzak, jertseak, bi txaketa, zira bat eta gabardina bana...»	(21)



zirrara 'ikara, inpresioa'	«...eragin zion zirrarakatik ia hitzik egin ezinik, goizean goiz ez zegoen koskor bat erakutsi zion horizontean.»	(103)
zirriztu 'zirrikitu, irekidura'	«...esfera hark ez zuen inon zirrizturik zabaldu ahal izateko.»	(73)
zizakatu 'txutxu-mutxuka esan'	«...zentzurik gabeko hitzak zizakatzen zituen bitartean...»	(13)
zokorgabetu 'lur mokilak kendu, apurtu'	«Eta geroxeago, nola lurra zokorgabetzen ari zen...»	(174)
zurda 'zenbait animaliaren ilea'	«Eta aldi berean espekulu eta zurdak ere bilatzen zituen, erditzerakoan arazoren bat sortu eta ebaketa egin behar izanda ere.»	(155)